



ETXEBARRE

Etxebarreko Üngürüa

Distantzia **12,3 km** | Desnibela **550 m** | Iraupena **3h30** | Tipologia **Itzulia** | Zedarriak **PR seinaleak**

Atharratzetik, Lexantzütik pasatu. Autoa Etxebarreko herria gabe, 500m-tan, arrain-hazkuntzara doan bidegurutzeta eta gero utzi.

GPS datuak: **UTM : 671886 - 4771742 Lat/long : 43.07888/0.88851**

Euskal Herriko herri txikienetarikoa bat : Etxebarre. Bosmendietako mendigunean kokatua, lasaitasunak ingurumenak hartzen ditu, eta han itzuli baten egitea goxo da. Jendetzatik urrun, abiatzea, Erbexeko oihana eramaten gaituen bide zahar batetik egiten da. XIX. mende bukaeran Larraineko meategietara joateko, burdin meaz beteak ziren mandoek ibar hori segitzen zuten. Enbor gotordun arbola zaharrek, etxaldeetatik urrun den oihana osatzen dute, eta horrek ibilaldia basagoa egiten du. Malda baten ondotik, Xiberoko gune sekretu batetara, Bizaigañara iristen gara. Urrunago, Zalhagañeko puntako mendi mazela batean, ibarreko eta hurbil den Biarnoaren gainean bista zabal bat agertzen zaigu. Ezpeldoiko auzora eta bere disko formako oroigarria jaisten gara.



1. ZATIA > Aparkalekua

UTM : 671886 - 4771742

Etxebarrera joan (ezkerreko lehen bidea ez hartu). Herria zeharkatu. Paretan markatua den gurutzean, ezkerreko pista/bidea hartu. Urrunago, goiti doan bidexka goxo bat bilakatzen da. Etxe baten ondoan pasatu eta pixka bat bidera jaitsi. Bidegurutzetan, ezker hartu.

2. ZATIA > Ibarrenborda


UTM : 670323 - 4771484

Betoizko malda txiki baten ondotik, pista bukatzen da (jabego pribatuan ez sartu). Eskuineko bidexka hartu. Hau beti jarraiki. Desmaila hemen ez da hainbestekoa, eta orokorki malda goxo da. Arretalepoako etxeko hondamenen aitzinetik pasatu.

3. ZATIA > Bidegurutzeta

UTM : 669229 - 4770456

Hondamenetik hurbil da. Ezkerrean jaisten den bidea hartu. Erreka zeharkatu eta goiti joan, batzuetan Erbexeko oihanean bortizki iragan. Lepo txikiaren ondotik, agerian, eskuinean igotzen den bidexka hartu. Tontorrera iritsi baino lehen, begi-bistan diren harkaitz batzuen ondotik pasako zarete. Ondotik, kaskora arribatu aitzin, eskuineko mendi-mazelara joanen da.



4. ZATIA > Bizaigaña

UTM : 669485 - 4769913

Soro zabalen gaineko tontorrean atzematen da. Bidexka, Obiageko bordara bortizki jaisten da. Honen alde gainean, hesi bat pasa eta mazelan, lurrezko pista bat aurkituko duen bidexkan segitu. Hau, Bosmendietako harrizko pistara iristen da. Ezkerrean batzuetan pistatik hurbiltzen den bidetik jaitsi. Mundrun bidea 300m-z hartu.

5. ZATIA > Bidexka

UTM : 671506 - 4770055

Ezkerrean bihurgune batean hartu. Hau, urrunago Alkornoa etxaldera arte oihan batean sartuko da. Jaisten eta mundrunatua den bidexka txikia hartu.

6. ZATIA > Aparkalekura itzuli

UTM : 672172 - 4771645

Ezpeldoiko auzoko lehen etxea aitzin eta bidegurutzeta bat baino lehen, ezkerreko bidexka hartu. Ezkerrean, abiatze punturaino eramaten duen bidexka hartu. (Berterretxeren disko formako gurutze oroigarria, Ezpeldoiko etxetik hurbil atzematen da, bide bazterrean).



INTERES GUNEA


❖ **Protohistoriako gune**
hurbilak "Gaztelariko botxia" barne non, Bizaiko puntatik hurbil, ibarreko heltzeak zaintzen ziren.

❖ "Arretalepoako" hondamenak

Aitzineko mendean jendeak isolaturik bizi ziren eta hau lekuko ederra da.

❖ Berterretxeren disko formako oroigarria

XV. mendekoa, Mauleko bizkonde batek, Larraintar laborari bat bere emaztegaia erailtzeko erail zuela oroitarazten du. Herriko kantu oso famatu hau Euskal Herriko ederrenetarikoa bat da. Herria, hizkuntza anitzetan itzulia izan den Trebanian-ek idatzitako "Shibumi" eleberriaren barne da.



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurgiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurgiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzat dute emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiotzu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKEL BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitze aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- ATHARRATZE
Arhanpia karrika
+33(0)5 59 28 51 28
- MAULE
Jean-Baptiste Heugas karrika
+33(0)5 59 28 02 37

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↵	↵	↵	◀
Itzul eskuin	↶	↶	↶	▶
Norabide okerra	×	×	×	✗